

<http://ikas.eus/spip.php?article865>



Atsedendian - antzerkia

- Baliabide pedagogikoak - Literatura formatu digitalean - Antzerkia - Kattalin Sallaberryren Antzerkiak -



Linean argitaratua data honetan: 2010(e)ko abenduaren 21a

Copyright © IKAS Euskal Pedagogia zerbitzua - Eskubide guziak

erreserbatuak



Atsedendian Kattalin Sallaberryren antzerkia

Obra hau copyrightaz gerizatua da. Baimenik gabe kopiatzea, zabaltzea edo berrekoiztea debekatua da.
©Ikas euskal pedagogia zerbitzua, 2010.

1. ikaslea: Otsotan jostatzen bagina?

2. ikaslea: Bai! Ni izanen naiz otsoa eta zuek bildotsak!

3. ikaslea: Bo... Nik ez dut lasterka aritzeko gogorik. Atzo futboleko trebaketa nuen eta gorputz guzia minberatua dut. Kartetan jostatzen bagina?

2. ikaslea: A ez! Aski egonak gara jarririk! Nik mugitzeko gogoia dut! Futbolean ar gaitezen eta zu, akitua baldin bazara, atezain egizu.

3. ikaslea: Berriz ni atezain? Azken aldian ere atezain nintzen.

1. ikaslea: Jakin behar da zer nahi duzun! (Pentsakor) Zer egin genezake... Uztaiak lerrokatuko ditugu eta errelebo gisa joan-jinak eginen ditugu. Aldizka eredia emanen dugu eta zuk gorputza minberatua baldin baduzu, so egoiten ahalko zara.

2. ikaslea: Bai eta uztaiak mugituko ditugularik beren lekuan ezarriko dituzu. Bazaizu?

3. ikaslea: Ados baina arratsalde honetan nik dut jokoa hautatuko. Are, non dira uztaiak?

Driiiiiiiii.....

Irakaslea: Tenorea dugu! Sartzen gara!

1. ikaslea: Zer? Jadanik?

2. ikaslea: Ez dugu astirik ukan jostatzeko!

Irakaslea: Bistan dena! Atsedendia guzia eztabaidan pasatua duzue! Are! Lanera orain!

Jokalariak: Hiru ikasle eta irakaslea

Autorea: Kattalin Sallaberry

Argitaratzailea: Ikas

Argitaratze data: 2010/12/21

Maila: 3. ziklotik goiti